

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URBIDE ARABAKO UR PARTZUERGOA- CONSORCIO DE AGUAS DE ÁLAVA

URBIDE Arabako Ur Partzuergoko lanpostuen zerrenda (LPZ) aldatzea

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 74. artikulua xedatzen duenez, administrazio publikoek lanpostuen zerrenden bitartez edo antzeko antolaketa tresnak erabilia egituratuko dute beren antolamendua. Horiek, gutxienez, hauek jasoko dituzte: lanpostuen izena, lanbidesailkapeneko taldeak, atxikita dauden kidegoak edo eskalak, lanpostuak betetzeko sistemak eta ordainsari osagarriak. Tresna horiek publikoak izango dira.

Halaber, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak 45.1 artikuluan ezartzen duenez, lanpostu zerrendak euskal administrazio publikoek beren barne egiturak arrazionalizatu eta ordenatzeko baliatzen dituzten tresnak dira, baita langile beharrianak zehaztu, lanpostuetan jarduteko betekizunak definitu eta lanpostu bakoitza sailkatzeko ere, efikaziari, efizientziari eta antolaketarako arrazionaltasunari buruzko irizpideen arabera.

Ondorioz, lanpostuen zerrenda Urbide Arabako Ur Partzuergoaren barne egitura arrazionalizatzeko eta antolatzeko tresna tekniko da. Lanpostuen zerrendak une bakoitzeko beharren arabera zehazten ditu langileak, eta lanpostu bakoitza betetzeko eskatzen diren betekizunak eta ezaugarriak zehazten ditu, horietako bakoitza sailkatuz eta izena adieraziz, bakoitzaren dotazioak, atxikita dagoen saila edo zentro organikoa, lanbide sailkapeneko taldeak edo azpitaldeak eta, hala badagokio, atxikita dauden kidegoak, eskalak edo beste sistema batzuk, hornidura sistema, lanpostuari lotutako ordainsari osagarriak, lanpostuaren hizkuntza eskakizuna eta, hala badagokio, derrigortasun data, arduraldi araubidea eta lanpostuaren izaera berezitua edo normalizatua.

Urbide Arabako Ur Partzuergoko lanpostuen zerrendan jasotako lanpostuen ordainsariak egokitzeko (2021eko martxoaren 25ean onetsi zen zerrenda hori), eta Urbideko lanpostuen balorazio eskuliburua eta lanpostuen balorazio txostena egin ondoren, Gobernu Batzordeak, 2023ko maiatzaren 23an egindako bileran, erabaki zuen onestea Urbideko lanpostuen balorazio eskuliburua, lanpostuen balorazio txostena eta ondoriozko lanpostuen zerrenda aldatzeko proposamena, eta erabaki hori batzar orokorrari aurkeztea, behin betiko onets dadin.

Horregatik, azaldutakoaren arabera, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 i) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta partzuergoaren estatutuen 18 q) artikuluan emandako eskumenez baliatuz, Arabako Ur Partzuergoaren batzar orokorrak, 2023ko maiatzaren 31n egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen:

LEHENENGOA. Onestea Arabako Ur Partzuergoko LPZ aldatzeko proposamena, txostena eta eskuliburua, Urbideko lanpostuen 2023ko maiatzeko balorazio txostenean adierazitakoaren arabera. Aldaketa honetan datza: honako lanpostu hauen ordainsariak egokitzea, hartutako eginkizunen eta ordainsari osagarriaren arabera (DO eta BO):

1. ZUZENDARITEKNIKOA.

Aldaketa berezi eta salbuespenezkoa, hain zuzen, lanpostuaren edukia ordainsarietara egokitzea, DO eta BO ordainsari osagarriak ez daudelako behar bezala finkatuta, ez baitago lanpostuaren baldintzen baloraziorik objektiboki zehazteko. Balorazio hori bat dator Urbideko balorazio eskuliburuko balorazio parametroekin, eta emaitza hau du zuzendari teknikoaren lanposturako (A-1 kategoria): DO 29 maila eta BO 29.048,33 euro, ondorioekin soldatei dagokienez kontratazioaren hasieratik, eta kontuan hartuta betetako eginkizunak, izandako dedikazioak eta gainerako inguruabarrak, horiek ere kanpoko laguntza teknikoak egindako dokumentazioan sartuta.

2. SAREETAKO ERDI-MAILAKOTEKNIKARIA.

Aldaketa berezi eta salbuespenezkoa, hain zuzen, lanpostuaren edukia ordainsarietara egokitzea, DO eta BO ordainsari osagarriak ez daudelako behar bezala finkatuta, ez baitago lanpostuaren baldintzen baloraziorik objektiboki zehazteko. Balorazio hori bat dator Urbideko balorazio eskuliburuko balorazio parametroekin, eta emaitza hau du sareetako erdi-mailako teknikari lanposturako (A-2 kategoria): DO 24 maila eta BO 21.535,83 euro.

3. ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA.

Aldaketa berezi eta salbuespenezkoa, hain zuzen, lanpostuaren edukia ordainsarietara egokitzea, DO eta BO ordainsari osagarriak ez daudelako behar bezala finkatuta, ez baitago lanpostuaren baldintzen baloraziorik objektiboki zehazteko. Balorazio hori bat dator Urbideko balorazio eskuliburuko balorazio parametroekin, eta emaitza hau du administrari laguntzaile lanposturako (C-2 kategoria): DO 18 maila eta BO 17.195,27 euro.

BIGARRENA. Administrazio orokorreko teknikari plaza (TAG) sortzen da:

Titulazioa: Zuzenbideko gradua edo baliokidea. Taldea: A1. Maila: 26.

Lanpostuaren berezko eginkizunen, ordainsarien, dedikazioaren, ordutegiaren eta beste inguruabar batzuen deskribapena ATE enpresak egindako 2023ko maiatzeko amaierako txostena lanpostuen balorazio txostena izenekoarekin bat etorritik egingo da, Urbideko batzar orokorrak 2023ko maiatzaren 31n onetsi baitzuen.

HIRUGARRENA. Erabaki honek batzar orokorrak onetsi eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, hargatik eragotzi gabe ALHAOn argitaratzea.

LAUGARRENA. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik —urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan ezartzen duenarekin lotuta—.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 26a

Presidentea

JOSEAN GALERA CARRILLO

**LANPOSTU ZERRENDA
FUNTZIONARIOAK**

IZENA	ESKALA	AZPIESKALA	TITULAZIOA	HS	DEDIKAZIOA	TALDEA	DO maila (1)	BERARIAZKO OSAGARRIA (2)	UDALHITZ MAILA (1)	HE	DERRIGORTASUN DATA	EGOERA	BESTE BATZUK
ZUZENDARI TEKNIKOA	ADMINISTRAZIO BEREZIA	TEKNIKARIAK	INGENIARITZAKO GRADUA MASTERRAREKIN EDO BALIOKIDEA	C	O50A	A1	29	45.602,34 (3)	29	3	Datarik gabe	BETETA	Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 121. artikularen arabera beteko da
SAREETAKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA	ADMINISTRAZIO BEREZIA	TEKNIKARIAK	INGENIARITZAKO GRADUA EDO BALIOKIDEA	C	O50A	A2	21	21.535,83	21	3	Datarik gabe	HUTSIK	Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 121. artikularen arabera beteko da
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	ADMINISTRAZIO OROKORRA	LAGUNTZAILEA	DBH-KO GRADUA EDO BALIOKIDEA	C	O50A	C2	18	17.195,27	18	2	Datarik gabe	BETETA (4)	
ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA	ADMINISTRAZIO OROKORRA	TEKNIKARIAK	ZUZENBIDEKO GRADUA EDO BALIOKIDEA.	C	O50A	A1	26	22.871,38	26	3	Datarik gabe	HUTSIK	Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 121. artikularen arabera beteko da

(1) Batzar orokorraren 2022ko uztailaren 27ko erabakia.

(2) Negoziazio kolektiboan adostutako ordainsari igoeren ondoriozko eguneratzea aide batera utzi gabe.

(3) Tarte orokorren berariazko osagarria eta arduraldi berezia, onetsitako lanpostuen balorazio txostenaren arabera.

(4) Langile lan kontratudunak betetzen du gaur egun.